



ALEGAZIOAK, OSAKIDETZAREN II EUSKARA PLANAREN GARAPEN BATZORDEAREN OSAERA ETA JARDUNBIDEAREN ZIRRIBORROARI

- Jardunean zebiltzan euskara-batzordeak jardunean jarraitzea nahi dugu, eta zituzten azterketa-eginkizunak, euskararen erabileraren normalizazioari buruzkoak, gordetzea (hizkuntza-eskakizunak, liberazioak...).
- Osaerari dagokionez, sindikatuetatik dagoen partaidetza sindikatu bakoitzaren ordezkartza-mailaren eta proportzioaren arabera izatea.
- Batzordeburua nor den batzordearen baitan erabakiko da bozketa bidez.
- Osaeran, alde bakoitzak (administrazioa, sindikatuak eta gizarte-elkarteak) ordezkartza osoaren herena izatea nahi dugu.
- Bileretan egin beharreko lana errazte aldera, bileran jorratu beharreko informazioa bilera egin aurretik bidali behar zaie partaideei.
- Seigarren artikulua kentzeko eskatzen dugu. Halaber, kideak hautatzea edo bileren gaiak mugatzea administrazioaren aldetik doazen pertsonen esku uzteko aukera kentzeko eskatzen dugu.